

UBM, 8-9

[BAT-BATERAKO BABEL-NAHASPILA]

Bat-baterako babel-nahaspila baterako ta besterako
desbatera izugarri baterakoan zekusan hiria
eskolako lege zurrunez
ezin bait zuen islatu

IDAZTEN

berriz IKASI beharrez ohartu zen

zuten
begiek
ikusten

zuen
errealitate berriaren

egitamuak
eskatzen
eskaintzen

zioten
begiek

jarrai-bide jartzen:

Kaleko, hiriko, metropoliko bizitza
askotsu askotariko askotarako azkar baterakoaren ritmo,
irudi, soinu, izakera, irizpen
-ardaila bizi
bizkor
zurru-burrutsuaren

ANTZERATAN

ANTZ-ARAUTAN

eman, jaso, jaurti, irauli, jarein, multzatu zitzala

hitzak
esaldiak.

Idazleak pena sentitzen zuen zekien teknika utzi beharraren aurrean, bide gabe geratu ote zitekeen beldurra,
zekiena

jakin zezakeenaren alde jokotan jartzeko ikara.

Nola behar zuen usuarioak orain artean zabaldu

zolatatu

baraldatau

egokitu

gozatu bide ederrik laga

ta

gaurko errealitate azkar

larri

aldakor

nahasiaren aireko

ESPRESIOBIDE azkar

larri

aldakor

nahasiaren airekoz aritu?

Hala ere sarri

entzuten zien begiei.

Baina

ezin zen askatu

ezin zuen lehertu

bere ohiko tankera tankarrik

ezin zen atera usarioko araudi koskoldutatik

ezin zen jarri badaezpadako idazkera entsegurik

urratzen. Nola behar zuen hiri-bizitzaren prezeptiba-
martxa dena baterako eta besterakotan idatzi?

Eta prudentziaren

buruko painueloz

estaltzen zituen

begiak.